



**ARANTZako UDALA**

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@terra.es

## 2012KO URRIAREN 5EKO BILERAREN AKTA

**Organoa** o bilera.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2012.10.05.

**Ordua:** Arratsaldeko 19:30etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

### **Zinegotziak:**

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren on
- 2.-Imanol Artola zinegotziaren idatzia argiteriari buruz.
- 3.-2013ko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.
- 4.-Udal eraikinen garbiketa zerbitzua.
- 5.\_Eskolako gimnasioa erabiltzeko eskaerak.
- 6.-Alkatearen ebazpe
- 7.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2012ko irailaren 30ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE ondorengo gaineratuz:

Alkateak adierazi du Ekoleds Innovations S.L. enpresari behar baino puntuazio guttiago eman zitzaiola eta ez zela ongi ulertu eurek aurkeztutako hobekuntzak. Halaber salatu du Imanol Artolak berari errandako hitzak: gezurteroa, tranposoa eta interesduna afera honetan.

### **2.-IMANOL ARTOLA ZINEGOTZIAREN IDATZIA ARGITERIARI BURUZ.**

Irakurri da Imanol Artola Guridi jaunak 2012ko irailaren 24an aurkeztutako idatzia.

Honela dio:

“Argiteria aldatzeko obren esleipenari buruzko azalpenak.

2012ko irailaren 20an hartutako akordioarekin desadostasuna konstarazteko ondorengo adierazten dut:

1.-Atentzioa eman dit, Arantzako Udalarentzat garrantzia duen gai honetan, Amorebietako ECOLEDS enpresaren alde egitea, puntuazio hoberena lortu duen proposamena dela argudiatuz, prezioa bakarrik kontuan hartuz eta ez garrantzia duten bertze iritzirik.

Adibide bat jarriko dut. Eman dezagun Logroñoeko enpresa bat aurkezten duela bere proposamena prentsan ikusi ondoren deialdia eta berak lortzen du puntuazio hoberena. Ezezaguna den Logroñoeko enpresa horrerik esleituko zen obra puntuazio hoberena lortu duelako bertze aukerak aztertu eta ikertu gabe?

Nire erantzuna EZ da.

2.-Nire sententzia hau da: Plenora bertaratuen artean, gehienak, ez zuten ezagutzen sistema baten edo bertzearen abantailak eta desabantailak. Saiatu nintzen diferentziak azaltzen baino ez zidaten utzi, erranez arrazoi horiek BERDIN enpresaren interesa zela. Momentu horretan ez zidaten utzi diferentziak azaltzen eta orain idatziz utzi nahi ditut LUIX eta BERTZE sistemen bereizgarriak.

Aipatutako diferentziak hauek dira:

a).- ABANTAIL EKONOMIKOAK.

%84,7ko energia aurreztea. Hori horrela ikuskatu du Isabako herrian kanpoko auditore batek, Nafarroako Gobernuak eskatuta.

b)ABANTAIL TEKNIKOAN ETA ERABILERAN.

-Luix sistemak argiaren maila igotzen du zerbaiten presentziaren aurrean. Ez bada deus hurbiltzen argiaren maila mantentzen da. Argia erabiltzen da behar denean bakarrik.

Bertze sistemak argiaren maila tikitzen dute ordu zehatz batean, baino, ez dutenez presentziarik detektatzen, pertsona edo ibilgailua pasatzerakoan ez dute argia igotzen.

-Luix sistemak detekzioak erregistratzen du (ze karraketan pasatzen diren ibilgailu eta pertson gehiago), ze eremuetan erabakitzeko argiaren maila tikitzen ahal den eta horrela gehiago aurrezteko. Zertarako egon behar du piztua %20an gau osoa ez bada inor pasatzen? Ondorioz jartzen da %10ean.

Bertze sistemak ez dute deus detektatzen, ez dira malguak.

-Luix sistema argiteria kudeatzeko aukera ematen du interneteko programa erratz baten bitartez, horrela argiteria ajustatzeko puntu bakoitzean nahi den bezala (egun zehatz batean plaza argitzea nahi bada, ze o zer bada...etab).

Bertze sisteman, behin jarritz gero, ez dute aldatzeko aukerik farola bakoitzara joan gabe.

-Luix sisteman kablerik gehitu gabe informazio banatzen du potentziako kable guztietara. IP teknologiarik egokitu dezake: bozgorailuak, Interneteko sarbide puntuak, informazio panelak...etab. Nahiz eta hau dena garatzen ari den, Orioko kanpinean internet zabaldu da Luix sistemako farolen bidez.

Bertze sistemetan ezin da horrelako soluziorik planteatu.

c) INDUSTRIARAKO KAUDIMEN ETA GIZARTERAKO ONURAREN ABANTAILAK.

-Luix sistema Euskal Autonomia Erkidegoko lehen ikerketa zentroa den Tecnicalia enpresak garatutako teknologia da. Proiektuan parte hartzen dute Berdin taldea (30 urte) eta Gureak babestutako tailerrak (30 urte). Denek ekonomia sortzen dute inguruan.

-Konpetentzia: produktuak eta teknologia inportatzeko maila handia. Deslokalizazioa laguntzen du. Kaudimen gutxigo dute.



**ARANTZako UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

3.- ECOLEDS enpresara bueltatuz eta interneten ikertu ondoren, ez delakoz niretzat ezaguna, ondorengo datuak lortu ditut:

-enpresa Amorebietan kokatua dago eta bertze bi enpresak hurbilago daude: Lezon eta Beran.

-ECOLEDS enpresak ez du ekoizten, Txinatik ekartzen du materiala.

-Ez du obren mantenimendu lanekin egiten, azpikontratazioekin baizik. Horrek aldatzen ahal du operazioaren prezioa.

Badakigu ze kosto izanen du Udalarentzat mantenimendu horrek?

Datu hauekin eta kontuan hartuz Plenora bertaratutako zinegotziek ez dugula ezagutzen ECOLEDS enpresa, galdera hau egiten dut: holako obra inportantea esleitzen ahal da puntuazio hobereana lortu duenari?

Nire erantzuna EZ da.

4.-Nire zalantzak ditut ECOLEDS enpresak ea egiten ahal dituen Arantzako Udalak eskatutako baldintzetan eta kalitate guttigoko bertzelako materiala sartuko ote duen hainbat hobekuntzekin apainduz: elektrizitatea hobetzeko hitzaldiak, ez dakigun zeri buruzko auiditoretzak eta bonbillen portzentai baten kopurua uztea. Eta galdetzen dut: Gai gara horrelako obra esleitzeko Arantzako herriarentzat hainbertze zalantza izan eta gero?

Hainbertze zalantza argitzeko, ezin da ECOLEDS enpresari LUIX sistema erabiliko duela adierazten duen idatzi bat aurkezteko eskatzea eta ez kalitate gutxigoko bertze sistema bat?

ECOLEDS enpresaren aldetik idatziz berme hori lortu arte, nire erantzuna EZ da.

5.-Bukatzeko, azaldu nahi dut gure aldeko begirune falta BERDIN enpresari. Arantzako Udala egoera larrian egon denean laguntza eskatu zaie, euren aldeko erantzuna %100eko izanik. Ari naiz, konkretuki, diru laguntza eskaera egiteko prestatu behar zen dokumentazioarekin. Eurei esker Arantzako Udalak lortu du Nafarroako Gobernuko diru laguntza obra burutzeko.

Konstarazi nahi dut, diru laguntza hori gabe ezin izanen zela obra egin. Eta galdetzen dut: Puntuazio hobereana lortu delakoz, merkeena delakoz, esleitzen ahal dugu obra hau azken orduan agertzen den empresa bati eta ez deus egin gabe Arantzako Udalak laguntza behar zuenean?

Jakina, nire erantzuna ezezkoa segitzen du izaten.

Aipatutako arrazoi guztiengatik, idatzi hau izenpetzen duenak adierazten du bere ikuspuntutik ez dela arrazoi nahikoa puntuazio hobereana lortzea obra hau esleitzeko.

Gauzak garbiak ikusten ez direnez eta eskutik joaten den afera denez, nire desadostauna agertzen dut Plenoan hartutako akordioarekin.”

Imanol Artolak gaineratu du bera ez dela teknikoa eta erabakia bertze era batera hartu beharko zela, herriarekin egon eta esleipena garbiagoa izateko.

Alkateak galdetu dio ea gaizki egin diren gauzak.

Imanol Artola jaunak erantzun dio, bere ustez, baietz.

Alkateak galdetu dio ea zergatik ez zuen deus erran hasieratik. Galdetu dio bertze zinegotziei ea zalantzarik baduten honekin. Puntuatu behar da, bertzela nola esleitu? Egia da ez dugula gaia zabaldu, ez dugu batzordeetan deus egin, informazio falta izan da baino gainerako ongi egin da.

Idazkariak erran du prozedura aldetik gauzak ongi egin direla.

Zure idatzian aipatzen duzu Logroñoko enpresarena. Hori ez da arazoa, marka baizik. Baina naiz eta marka desberdinak izan sistema berdina izaten ahal da. Ekolds enpresak ezin du sistema on bat jarri? Ekolds enpresarekin egindako bileran argi eta garbi erran zuen Udalak nahi zuena jarriko zela, erabakia Udalak du. Merezki du hainbertze diru gastatzea telegestioa izaten? Bertze bi enpresek bermatzen dute argi ona izaten? Aipatzen da Ekolds enpresaren materiala Txinakoa dela; jakin dutenez Luixko marka ere hangoa da ere.

Ekolds enpresak argi utzi du Udalak nahi duen enpresa proposatzen ahal duela mantenimendu lanak egiteko eta 10 urteko bermea ematen duela.

Zertaz jartzen da zalantzan Ekolds enpresaren materiala txarregoa dela?

Inamol Artola jaunak erantzun dio susmoa duela Ekolds enpresak ezin izanen duela Luix markako materiala erabili eta ez duelakoz inon zehaztu materialaren marka eta ezaugarriak. Nik eskatu ondoren bidali zuen hori dena, ordu arte ez.

Alkateak salatu du berak hartutako emaileak gai honi buruz. Gaineratu du bertze sistema bat posible dela bertze markarekin. Berdin enpresakoak erran du berak gauza bera eginen zuela gai honekin. Berdinek lagundu dio Arantzako Udalari, bai, baina berak ere interesa zuelakoz. Ezin du Udalak zuzenean berari eman horregatik.

Imanol Artolak erran du Berdinen laguntza handia izan dela diru laguntza eskatzerakoan; bertzela ez genuelako epean sartuko eskaera.

Jaime Iturria jaunak erran du esleipenean diferentzia aurrekontuan egon dela nahiz eta gaineko puntuetan Luixen alde egin. Puntuazio hoberena Ekolds enpresak lortu du. Nola esleitu behar da bertzenaz?

Imanol Artola jaunak erran du aurrekontuarekin ere ez dagoela ados, Ekolds enpresak ez duelakoz 127 farolen materiala saltzen. Aurrekontuen xehetasuna ez dira berdinak.

Alkateak eta idazkariak erran diote, hala ere, proiektuan eskatzen diren lan guztiak egin beharko direla emandako prezioan.

Koldobike Gorostiza andreak hauxe adierazi du:

“Argiterian esleipenean hartatukoaren hausnarketa eta iritzi propioa.

Nire iritzi, argiteria bezalako proiektu handietan lanean ari garenean, taldekideak eta herria ongi informatuak izan behar gara. Beharrezkoa den informazio eman behar da, zertan ari garen, zertan datzan proiektuak... Informazio denboraz eman behar da, informazioa aztertzeke denborarekin.

Argiterian esleipenean parte hartzeke, ni neu informatzen saiatu naiz, Leds bonbillak eta izan ditzaken aukera ezberdinetan informatzen saiatu naiz. Ez naiz informatu enpresa zehatz baten inguruan, ezta ere sistema zehatz baten inguruan. Nire iritzi propioz bozkatu nahi dudanez informatzen saiatu naiz.

Nire ustez udaleko lanetan ahal dugun inpartzialenak izaten saiatu behar gara eta taldekide guztien iritzia kontutan izan behar da! Nire ustetan gaiak ezin dira pertsona batzen nahira zuzendu, ezin da taldekide batek nahi duena onartu berterik gabe. Zertan datza udaleko lana? Bakarkako lanean edo talde lanean? Nire uste talde lanean datza. Denen iritzia beharrezkoa da, ez batzuenak bakarrik.

Beste aldetik, argiterian esleipenean “Zalantzan jarri da alkatearen zuzentasuna”, zer dela eta akusazio hauek? Erabakiarekin ados ez gaudelako, nahi ditugun akusazioak egin ditzakegu? Elkarrekin lan talde batean gaudelako, nahi ditugunak esan gaitezke bata bertzeari?

Niri ez zait iruditzen gauzak horrela direnik! Ez nago ados pertsonetikiko errespetu galtzekin! Ez nago ados norbaitek bere iritzia inposatu nahi izatearekin!

Txinpartak salto egin ondoren egun hauetan, esleipenera aurkeztu diren 2 enpresekin elkartzeko aukera izan dut, biek esandako gauzak aditzeko aukera izan dut. Harrituta utzi naute Ekoldesek egindako komentario hauek:



**ARANTZako UDALA**

[www.arantzako.eu](http://www.arantzako.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
[arantzako.udala@terra.es](mailto:arantzako.udala@terra.es)

-Esleipeneko pleguak “raya la ilegalidad”.

-Auditoria planoan egina dagoela, ez erliebean eta jarriko diren 127 luminarietara ez dugula argi nahiko izanen.

-Esleipenean azaltzen den aurrekontua garestia omen dela.

Nire galdera hau da, argiteriaren proiektuan zuzen eman dira pauso guztiak?”

Imanol Artola jaunak erran dio ia bere lana zalantzan jartzen ari den.

Koldobike Gorostiza andreak erantzun dio bere iritzia eman duela eta ez duela bere lana zalantzan jarri.

Ondoren Imanol Artola jaunak ondorengoak esan ditu:

“Formak eta fondoak.

**GARDETASUN FALTA EGON DELAKOZ.**

Berdin enpresak Luix sistema aurkeztu zuen otsailaren bian. Eskaintza honen bidez diru laguntza bat eskatu zen.

Eskeintza horretan oinarrituta proiektu bat egin zen.

Virgilio Musgo ohitua ez zuelako LED sistemarekin lan egiten, Berdin enpresaren laguntza eskatu zen aurrera ateratzeko proiektua, lan handi batekin

Nafarroako Gobernuak zuzenketa batzuk eskatu zituen San Ferminako asteen. Berrero ere Berdin-Luixeri eskatzen zaio eskaera horiek betetzea. Berrero ere lan handia batekin.

Arantzako Udala egoera larrian egon denean laguntza eskatu zaie Berdin enpresari. Kontuan eduki behar dugu berari esker Arantzako Udalak lortu duela Nafarroako Gobernuko diru laguntza obra burutzeko.

Diru laguntza hori lortuta gero, berrero ere kontaktatzen da Berdin enpresarekin eta eskatzen zaio “plego administratibo eta teknikoak prestatzeko”.

Lan hauek egin eta gero, azkeneko momentuan bertze enpresa bateri luzatu zaio gonbidapena, Jaime Iturriak erran zidan bezala, beldurra zuelako Berdinekoak prezio handiegia jarriko ote zuen.

Handik egun batzuetara galdetu nion ze enpresa izan zen gonbidatua eta ez nuen erantzun garbirik jaso.

Jakin izan nuenean bazegola bertze enpresa bat, Jaime Iturria jaunari galdetu nion, berrero ere, nola jakin izan zuen enpresa horrek Arantzako konkurtsoa honetaz. Jaime Iturriak erantzun zidan ez zekiela; bertze bide batetik jakin izango zutela.

Momentu horretan hasi nintzan susmo egiten.

Zergatik? Ez dakit zergatik berak zuen informazioa Ekoleds enprea hartan ez zidan azaldu, kontuan hartuta ordu arte biok egin genuela lana proiektu hau aurrera ateratzen.

**GAIZKI KUDEATUTAKO ARRAZOIAK**

Jaime Iturriak azalduz beldurra prezioari buruz ez zuten inolako indarrik, holako inbertsio handi baten barruan (100.000,00 eurokoa) irten zuen ezberdintasunekin, kontuan izanda Berdin eskeintza tekniko aldetik hobeagoa dela eta.

Ekoleds enpresak adierazpenak eman zituen behin obra adjudikatu ondoren, eta Berdin enpresari ez zitzaion aukerarik eman beraien proposamena defenditzeko.

Baliteke subentzioa galtzea Ekoleds egingo duen lanarekin, ez duela zer ikusirik izango Nafarroako Gobernuak onartutako proiektuarekin.

Arantzako Udalaegoera larrien egon denean laguntza hau, Berdin enpresari eskatu beharrean, zergatik ez zaio eskatu Ekoleds enpresari, hain ezaguna bazen Arantzako Udaletxean?”

Honen harira Imanol Artolak azpimarratu du Alkateari, Jose Javier Mitxelena jaunaren aurrean, hiru aldiz barkamena eskatu ziola bere formagatik. Orain Plenoari ere barkamena eskatzen du aurreko bileran izan zuen formengatik.

Alkateak erran dio berarekin bukatu duela, berak ez diola barkatzen ondoren ere zalantzak jartzen segitzen duelakoz egindako esleipena eta tranpa egin dela erraten duelakoz; barkamena horrek ez du baliorik, dio, jende aurrekoa bakarrik delakoz.

Ander Almandoz jaunak erran du Ekoleds enpresari esker jakin zela, proiektuaren araber, puntu beltzak izanen direla herrian. Kenduko du diru laguntza Nafar Gobernuak horregatik?

Alkateak aipatu du akatsak egin direla eta beharbada tekniko inpartzil bat hartu behar zela gauza garbiago egiteko.

Imanol Artola jaunak aipatu du bertze inbertsioa bat egiten bada (angulerokoa...) dena aurretik bertze era batera egin behar dela.

Jaime Iturria jaunak erran du gure akatsa dela, zurea eta nirea. Galdetu die zinegotzei ea berak gauzak gaizki egin dituen. "Tranpa egin dut?"

Ander Almandotz Indakoetxea jaunak, Koldobike Gorostiza Uriguen andreak, Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jaunak eta Jose Ignacio Madariaga Vergara jaunak ezetz erran diote.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jaunak gaineratu du berak ez duela gaia ezagutzen eta esleitzeko ongi kontrolatzea komeni dela.

Ander Almandoz jaunak erran du gaia denen artean erabaki zela.

Imanol Artola jaunak erran dio Alkateari ez zaiola ongi iruditzen galdera, kuestionatu dutelakoz ez duzuela egia erran.

Ander Almandoz jaunak erran du ez dela afera nola ikasi zuen Ekoleds enpresak deialdia berri. Berdin enpresak eginen zuen nahi zuena.

Idazkariak azaldu du berak bakarrik prestatu zuela 2012ko abuztuaren 30ean onartutako baldintza plegu administratiboa eta ez plegu teknikoa. Hori ondoren prestatu zen eta bidali gonbidatutako enpresa guztiei baino berak eta zinegotzi guztiak jakin gabe.

### **3.-2013KO KARGA TIPOAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.**

Gai hau mahai gainean utzi da zinegotzietz eguneko informazio banatu eta aztertzeke erabaki bat hartu baino lehen.

### **4.-UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUA.**

Gai hau mahai gainean utzi da gehiago aztertzeke, lan zerenda eta baldintzak gehien bat.

### **5. \_ESKOLAKO GIMNASIOA ERABILTZEKO ESKAERAK.**

Ikusirik Ana Larretxea Apezetxea andreak aurkeztutako gimnasioa erabiltzeke baimen eskaera, trikitixa, klaseak emateko.

Ikusirik Ana Larretxea Apezetxea andreak aurkeztutako gimnasioa erabiltzeke baimen eskaera, gimnasia eta aerobik egiteko ( astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 6:00etatik 7:00tara)

Ikusirik Clara Leiza Mitxelena andreak aurkeztutako gimnasioa erabiltzeke baimen eskaera, yoga klaseak emateko (astearteetan arratsaldeko 8:00etatik 9:30ak arte)

Ikusirik Arantzako Guraso Elkartek aurkeztutako gimnasioa erabiltzeke baimen eskaera, karate ikastaroak emateko (astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 7:00etatik 8:00ak arte).

Aho batez, ERABAKI DUTE:



**ARANTZako UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

1) Ana Larretxea Apezetxea andreari, Clara Leiza Mitxelena andreari eta Arantzako Guraso Elkarteari baimena ematea eskolako gimnasioa erabiltzeko, beti ere klase ondoren gimnasioa garbi uzteko baldintza pean.

#### **6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Azken bileratik ez da ebazpenik sinatu.

#### **7.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

#### **8.-BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN PROPOSAMENA.**

Irakurri da Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak bidalitako proposamena, Kontziliazio Itunaren ardatz bati buruz, ezkontzen direnenak sinatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Proposamena onartzea.

#### **9.-ESKOLAKO EGUTEGIA.**

Arantzako Guraso Elkarteak egutegia egiteko intzertzioa du. Bertan entitate desberdinak agertzen dira, nahi izanez gero.

Ikusirik Arantzako Udala agertzea komeni dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako Guraso Elkarteak eginen duen egutegian modulo bat jartzea eta ordez 100,00 euro ordaintzea

Bertzerik gabe, gaueko 22:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.



